

Leire Araneta Zubizarreta

A maila • 2 aipamena

Irudimenarekin eta sormenarekin lan egitea ez da batere erraza. Zaila egiten zait orri zuri baten aurrean jarri eta idazten hastea. Kosta egiten zait nire burua errealitatetik kanpo irudikatzea. Beti izan ditut nahiago zientziaren objetibotasuna eta zehaztasuna, azalpen garbi bezain argiak. Leire Araneta naiz, ordiziarra, eta oraingo honetan neure buruari barrenak askatzeko aukera eman diot, betiere egiazkotasunetik asko urrundu gabe.



SEKUOIA

Ezin ahortzi dut
egur zati mehe eta
ahula nintzenekoa.
Ezin sostengatu nire
burua zuzen eta sendo.

Inguruko guztiak nituen
eder eta garai,
adarrak hosto
berde eta ederrez beteak.
Ni, ordea, egur zati bat besterik ez.

Denborak aurrera zerraion,
baita inguruko guztiak ere.
Batzuk hazten, indartzen;
besteak goibeltzen, makaltzen.
Batzuen ludiratzea, besteen herioa.

Ni, aldiz, ez atzera ez aurrera,
beti bezain baliogabe,
mengel bezain ergel.

Hasi nintzen azkenean
apurka-apurka azkartzen,
lurzoruari tink eusten,
abarrak ilkitzen.

Hasi nintzen azkenean
zuhaitz bihurtzen,
kementzen,
segurtasuna lortzen.

Hasi nintzen azkenean
geruraz geruza
nire babeslekua eraikitzen,
osotasuna lortzen,
handitzen.

Jada ez naiz hasierako
adaxka guri eta argal hura,
alderantziz,
denetan indartsuena naiz,
tinko bezain irmoa.

Besoak zabal-zabalik
mantentzea
gogoko dut,
luze-luze,
libre-libre.

Maite ditut maite
nire klorofiladun orriak.

Maite ditut maite
nire erroak.

Maite dut maite
nire burua.

Antzina sekuoia izatea
desiratu nuen,
txikitasunean handitasuna
aurkitzen.

Egun,
honen ibilbidea
marrazten ari naiz.